



## Asteburu honetan Lasarte-Orian N-I errepidea gauzez itxiko da AT Sistemako arku berria jartzeko



***Larunbateko 22:00etatik, urriak 29, igandeko 06:00etara errepidea itxita egongo da bi noranzkoetan***

Asteburu honetan Bidegi foru agentziak AT Sistemako lau arku berrietatik hirugarrena jarriko du N-I errepidean, Lasarte-Orian. Arkubura lekuz aldatzeko eta muntatzeko lanak direla eta, larunbateko 22:00etatik, urriak 29, eta igandeko 06:00etara errepidea itxita egongo da bi noranzkoetan. Arkua Urnietara doan GI-3832 errepideko goiko pasabidearen parean jarriko da, 452,500 kilometro puntuan.

Bidegik, ahal den neurrian, puntu horretako joan-etorriak aurreratzea edo atzeratzea gomendatzen du, itxierarekin bat ez etortzeko. Alternatiba gisa, Irungo noranzkoan doazen ibilgailuak 451. irteeratik desbideratuko dira Lasarte-Oriako hirigunea N-I zaharretik zeharkatuz eta Goiegiko biribilgunearen parean berriz ere autobidera sartzeko. Donostiatik Gasteizerantz doazenek GI-11 errepideko 1. irteera erabili beharko dute eta ibilbide bera egin kontrako noranzkoan Zubietako biribilguneraino. Irundik AP-8tik eta Donostiako bigarren ingurabidetik Lasarte-Oriara doazenek 19. irteera erabili beharko dute eta A-15 errepidetik jarraitu Andoaineraino eta Bazkardoko lotunean Lasarte-Oriarantz hartu. Mozketak eta desbideratzeak seinaleztatuta egongo dira.

Arku berriak Etzegaraten, Ordizian, Andoainen, Astigarragan, Beasainen edo Tolosan daudenen ezaugarri berberak izango ditu: ia 30 metroko luzera eta 16 tonatik gorako pisua duen egitura. Matrikulak irakurtzeko eta ibilgailuaren jarraipena egiteko 12 kamera izango ditu, argi infra-gorriarekin, 6 noranzko bakoitzean, eta 12 antena TAGak irakurtzeko eta ibilgailuak kokatzeko, baita 6 ere noranzko bakoitzean. Era



berean, 6 laser detektagailu izango ditu, noranzko bakoitzeko hiru, eta horiek egingo dute ibilgailuak sailkatzeko detekzio bolumetrikoa.

Aurreikuspenen arabera, arku honen ondoren azkena azaroaren amaieran altxatuko da, A-15 autobidean, Belabietako tunelaren parean.

Zarautz, 2022-10-25

## Cierre nocturno de la N-I en Lasarte-Oria este fin de semana para colocar el nuevo pórtico de AT Sistema



***Desde las 22:00h del sábado 29 de octubre hasta las 06:00h del domingo la carretera estará cortada en ambas direcciones***

La agencia foral Bidegi instalará este fin de semana en la N-I en Lasarte-Oria, el tercero de los cuatro nuevos pórticos de AT Sistema. La operativa del traslado del dintel y su montaje obligará a cortar la carretera en ambos sentidos desde las 22:00h del sábado 29 de octubre hasta las 06:00h del domingo. El pórtico irá en el pk. 452,500 a la altura del paso elevado de la carretera GI-3832 a Urnieta.

Bidegi recomienda en la medida de lo posible adelantar o retrasar los desplazamientos por este punto para no coincidir con el cierre. Como alternativa, los vehículos en sentido Irún serán desviados por la salida 451 hacia Lasarte-Oria atravesando el casco urbano por la antigua N-I para volver a reincorporarse a la autovía a la altura de la rotonda de Goiegi. Los tráfico que desde Donostia se dirijan hacia Vitoria-Gasteiz por la N-I deberán utilizar la salida 1 de la GI-11 y efectuar el mismo recorrido en sentido contrario hasta la rotonda de Zubieta. Los provenientes de Irún por la AP-8 y el segundo cinturón de Donostia-San Sebastián con destino Lasarte-Oria deberán utilizar la salida 19 y continuar por la A-15 hasta Andoain y en el enlace de Bazkardo girar hacia Lasarte-Oria. Los cortes y desvíos estarán señalizados.

La nueva estructura tendrá las mismas características que las existentes en Etzegarate, Ordizia, Andoain, Astigarraga, Beasain o Tolosa: Una estructura de casi 30 metros de longitud y un peso total de más de 16 toneladas. Llevará 12 cámaras de lectura de matrículas y seguimiento del vehículo con luz infra-roja, 6 en cada sentido, y 12 antenas para lectura de los TAG y posicionamiento de los vehículos, también 6 en



cada sentido. Asimismo, estará equipado con 6 detectores láser, tres por sentido que serán los que realicen la detección volumétrica para clasificar los vehículos.

Se prevé que tras este pórtico se levante el último a finales de noviembre en la autovía A-15 a la altura del túnel de Belabieta.

Zarautz, 2022-10-25